Pasaiako Udala
Zk / Nº 2025/6516
Data / Fecha 2025/12/17
Dekretua / Decreto

## EBAZPENA
### Aurrekariak

Lehenengoa.- Pasaiako udalak indarrean du dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra, Pasaiako Udalak eta bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautu eta finkatzeko (2024ko urriaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 195. zenbakian, argitaratua).

Bigarrena.- Ordenantza horren zati batzuk aldatu egin ziren eta aldaketa horiek 2025eko abenduaren 12an argitaratu ziren GAOn (238. zk.).

Zehazki, Pasaian 2025eko ez-ohiko dirulaguntzak aldaketa horretan jasotako oinarri espezifikoen arabera arautzen dira.

Hirugarrena.- 2023-2025 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoak 2025 urterako dirulaguntzak jasotzen ditu 3. atalean.

Laugarrena.- 1 13.481.01.341.00 2025 partidan 9.500 euroko zenbateko aurrekontu-kreditua dago, Kiroletako ez-ohiko dirulaguntzak emateko.

Bosgarrena.- JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA saileko teknikariak 2025erako deialdiaren proposamena egin du, aipatutako

## RESOLUCIÓN
### Antecedentes

Primero.- El Ayuntamiento de Pasaia tiene en vigor una ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones que tiene por objeto regular y fijar los criterios y el procedimiento de concesión de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 195 de fecha 9 de octubre de 2024).

Segundo.- Dicha ordenanza fue modificada parcialmente (BOG nº 238, de 12 de diciembre de 2025).

En concreto, las subvenciones no ordinarias en Pasaia correspondientes al año 2025 se regulan por las bases específicas contenidas en la citada modificación.

Tercero.- El plan estratégico de subvenciones para los años 2023-2025 tiene contemplado en el apartado 3 las subvenciones para 2025.

Cuarto.- Existe crédito presupuestario en la partida 1 13.481.01.341.00 2025 por importe de 9.500 euros con el objeto de conceder las subvenciones no ordinarias del deporte.

Quinto.- Se ha elaborado por parte de la técnico del departamento ACTIVIDAD FISICA Y DEPORTE la propuesta de la convocatoria para el 2025 de acuerdo con

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

ordenantzaren I. tituluko II. kapituluan ezarritakoaren arabera.

lo establecido en el Capítulo II del Título I de la citada ordenanza.

## Zuzenbideko oinarriak

Honako xedapen hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, I. tituluko II. kapituluan norgehiagoka- erregimenean emateko prozedura arautzen duena.

Lege horren 23. artikuluaren arabera, dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasten da beti, organo eskudunak onartutako deialdiaren bidez.

Bigarrena.- Dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra, I. tituluko II. kapituluan norgehiagoka-araubidean emateko prozedura arautzen duena.

Hirugarrena.- 2023-2025 ekitaldietarako Pasaiako Udalaren, Pasaia Musikal Fundazio Publikoaren eta Pasaiako Udal Euskaltegiaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2023ko martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (57. zk.) argitaratua.

Jarduera Fisikoa eta Kirola saileko teknikari arduradunak 2025eko abenduaren 17an emandako ebazpen-proposamen txostenean oinarrituta,

## Fundamentos de derecho

Son de aplicación las siguientes disposiciones:

Primero.- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, donde se regula el procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva en el capítulo II del Título I.

En virtud del artículo 23 de la citada ley el procedimiento para la concesión de subvenciones se inicia siempre de oficio mediante convocatoria aprobada por el órgano competente.

Segundo.- La ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones que regula el procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva en el Capítulo II del Título I.

Tercero.- El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia, Fundación Pública Pasaia Musikal y Euskaltegi Municipal de Pasaia, para los ejercicios 2023-2025, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º
57 de fecha 23 de marzo de 2023.

Con base en el informe de la propuesta de resolución emitido por el técnico responsable del departamento de Actividad Física y Deporte en fecha de 17 de diciembre,

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

| Ebazten dut | Resuelvo |
|---|---|
| Lehenengoa.- Eranskinean agertzen den “2025eko Kiroletako ez-ohiko dirulaguntzak” dirulaguntzen deialdia onartzea. | Primero.- Aprobar la convocatoria de las subvenciones no ordinarias del deporte de Pasaia del año 2025 que figura en el anexo. |
| Bigarrena.- Deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez argitaratzeko agintzea. | Segundo.- Ordenar que se proceda a la publicación de la convocatoria a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones. |

Pasaian, sinadura elektronikoaren datan / En Pasaia, a fecha de firma electrónica

Teo Alberro Bilbao
**Alkatea** / El alcalde

| DEIALDIA | CONVOCATORIA |
|---|---|
| **1.- Oinarri arautzaileak**<br>Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak honako hauetan daude jasota:<br>• Pasaiako Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (2024ko urriaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 195. zenbakian, argitaratua)<br>• Jarduera Fisikoaren Eta Kirolaren Sailak dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten **oinarri espezifikoak**: Dirulaguntza Ordenantza orokorraren aldaketa (2025eko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 238. zenbakian, argitaratua). | **1.- Bases reguladoras**<br>Las bases reguladoras de la concesión de estas subvenciones están contenidas en la:<br>• Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 195 de fecha 9 de octubre de 2024).<br>• **Bases específicas** que regulan el procedimiento de concesión de subvenciones del Departamento de Actividad Física y Deporte: Modificación de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus órganos autónomos (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, nº 238, de 12 de diciembre |

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

| | |
|---|---|
| Dirulaguntza horiek Pasaiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. | de 2025).<br>Estas subvenciones están recogidas en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia. |
| **2.-Aurrekontu kredituak**<br>Dirulaguntza eta deitutako dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa honako aurrekontu-kredituei egotziko zaizkie:<br>1 13.481.01.341.00 2025 – 9.500 €<br>Kreditu hori honela banatzen da:<br>1. Atala: 9.500 €<br>Ataletako bati esleitutako gehienezko kreditua osorik erabiltzen ez bada, soberakina gainerakoen zuzkidura osatzeko erabili ahal izango da. | **2.- Créditos presupuestarios**<br>Los créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas son las siguientes:<br>1 13.481.01.341.00 2025 – 9.500 €<br>Este crédito se distribuye de la siguiente forma:<br>Apartado 1: 9.500 €<br>En caso de que el crédito máximo asignado a uno de los apartados no se utilice en su totalidad, el excedente podrá ser utilizado para completar la dotación del resto. |
| **3. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua; diruz lagundutako jarduera egiteko epea eta ordaintzeko modua.**<br>**Dirulaguntzaren xedea**<br>• Ez-ohiko dirulaguntzak<br>**Dirulaguntzaren baldintzak**<br>• Pasaiako kirol klub edo elkarteen erroldan altan egotea<br>• Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Saileko hizkuntza-irizpideak betetzea.<br>**Dirulaguntzaren helburuak**<br>**1. ATALA**<br>• Denboraldi bakoitzeko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean egindako | **3. Objeto, condiciones y finalidad de la subvención de la actividad subvencionada y modalidad de abono**<br>**Objeto de la subvención**<br>• Subvenciones no ordinarias del deporte<br>**Condiciones de la subvención**<br>• Estar dado de alta en el censo de clubes o agrupaciones deportivas de Pasaia.<br>• Cumplir con los criterios lingüisticos del Departamento de Actividad Física y Deporte.<br>**Finalidad de la subvención**<br>**APARTADO 1**<br>• Programas de actividades deportivas |

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

kirol-jardueren programak, Sailaren helburuekin bat datozenak. Adibidez, eta ez da erlazio itxia:

- Kirol jarduerak, probak eta txapelketak antolatzea eta egitea Pasaiako kirol jarduera dinamizatzeko (lehiaketa ofizial arruntak, eta Pasaiako barrutietako jaietan egindako jarduerak salbu) .
- Pasaiako herritarren kirola dinamizatzeko kluben jarduera bereziak.
- Kluben urteurrenak

realizados entre el 1 de septiembre y el 31 de agosto de cada temporada, acordes a los objetivos del Departamento. Por ejemplo, y sin constituir una lista cerrada:

- Organización y celebración de actividades deportivas, pruebas y campeonatos para dinamizar la práctica deportiva de Pasaia (excepto competiciones oficiales ordinarias y las actividades realizadas durante las fiestas de los distritos de Pasaia).
- Actividades especiales de los clubes destinadas a la dinamización deportiva de la ciudadanía de Pasaia.
- Aniversario de clubes

**<u>Diruz lagundutako jarduera egiteko epea</u>**

- 2024-2025 denboraldia (2024ko irailaren 1etik 2025ko abuztuaren 31ra)

**<u>Plazo de realización de la actividad subvencionada</u>**

- Temporada 2024-2025 (Del 1 de septiembre del 2024 al 31 de agosto del 2025).

**<u>Ordaintzeko modua</u>**

- Ordainketa bakarra

**<u>Modalidad de abono</u>**

- Pago único

## 4. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka-erregimenean izapidetuko da. Prozedura honetan, aurkeztutako eskabideak alderatu behar dira, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, ordenantza espezifikoan aldez aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleitu behar dira, kreditu erabilgarriaren barruan deialdian ezarritako mugarekin.

## 4. Procedimiento de concesión

El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva. En este procedimiento se debe proceder a la comparación de las solicitudes presentadas al objeto de establecer una prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en la ordenanza específica, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

| | |
|---|---|
| | los citados criterios. |
| Hala ere, ez da beharrezkoa izango lehentasun-hurrenkera bat finkatzea, baldin eta deialdian esleitutako kreditua nahikoa bada ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, aurkezteko epea amaitu ondoren.<br>Ezin izango da deialdian zehazten den kopurutik gorako dirulaguntzarik eman, ezta aurreikusitako aurrekontu-egozpenaren urteko mugak gainditu ere. Aurrekontua nahikoa ez delako erantzuten ez diren eskabideak ezetsi egingo dira; hala, ere, horien baremazioa ebazpenaren testuan zehaztuko da, ordenantza honetako 20.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Deialdian ezarri ahal izango da kreditu ezagatik behin betiko ukatutako eskabideek lehentasuna izango dutela egiten den hurrengo deialdian. | No obstante, no será necesario fijar un orden de prelación en el caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender, una vez finalizado el plazo de presentación, todas las solicitudes que reúnan los requisitos establecidos.<br>No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria, ni superar los límites anuales de imputación presupuestaria previstos. Aquellas solicitudes que no se atiendan por insuficiencia presupuestaria serán desestimadas, sin perjuicio de detallarse su baremación en el texto de la resolución a los efectos de lo prevenido en el artículo 20.2 de la ordenanza general de subvenciones del ayuntamiento de Pasaia. |
| Laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiaren xedea baino handiagoa bada, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatuko dela onartutako proiektuen edo programen aurrekontu doituen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, helburua eta xedea aldatzen ez badira. | En el caso de que la suma de los importes solicitados por quienes reúnan los requisitos para acceder a las ayudas sea superior al importe objeto de la convocatoria, dicho importe se prorratee entre las personas beneficiarias en proporción a los presupuestos ajustados de los proyectos o de los programas aceptados, siempre que no se alteren las condiciones, objeto y finalidad de la subvención. |
| Hala ere, onuradun edo proiektu bakoitzak jaso beharreko banakako zenbatekoa ez bada | No obstante, si la cantidad individualizada a percibir por persona beneficiaria o proyecto resultara insuficiente para la eficacia de las ayudas no procederá aplicar |

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

**IFK/CIF**
P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext.** 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA**
kirolak@pasaia.net



nahikoa laguntzen eraginkortasunerako, ez da hainbanaketa aplikatuko.

**5. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua**

Pasaiako Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren aldaketan ezartzen dira (2025eko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 238. zenbakian, argitaratua).

**6. Dirulaguntzak izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna**

Espedientea bideratzeko organo eskuduna hau da: JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA. Dirulaguntza bideratzeko zerbitzuak dirulaguntza emateko proposamena prestatuko du eta batzorde bati bideratuko zaio, hark irizpena eman dezan.

Ebazpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da.

**7. Balorazio-batzordearen osaera**

Balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute:

- Jarduera Fisikoa eta Kirol teknikaria
- Kultura teknikaria
- Euskara teknikaria

**8. Eskaerak eta zuriketak aurkezteko epea**

Eskaerak Pasaiako Udaleko Erregistro Elektronikoan aurkeztu beharko dira, onuraduna pertsona fisikoa denean izan ezik. Kasu horretan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ)

el prorrateo.

**5. Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**

Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus órganos autónomos (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, nº 238, de 12 de diciembre de 2025).

**6. Órgano competente para la instrucción y resolución**

El órgano competente para la instrucción del expediente es ACTIVIDAD FISICA Y DEPORTE. El servicio instructor elaborará la propuesta de concesión de las subvenciones y será elevada a dictamen de una Comisión.

El órgano competente para resolver será la Junta de Gobierno Local.

**7. Composición de la comisión de valoración**

La comisión de valoración estará compuesta por:

- Técnica de Actividad Física y Deporte
- Técnica de Cultura
- Técnica de Euskara

**8. Plazo y lugar de presentación de solicitudes y justificaciones**

Las solicitudes deberán presentarse a través del Registro Electrónico del Ayuntamiento de Pasaia, salvo en el caso

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

| | |
|---|---|
| ere aurkeztu ahal izango da. Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16. artikuluan zehaztutako gainerako bideetatik ere aurkeztu ahal izango dira. | de que el beneficiario sea persona física, que también podrá presentarla presencialmente en el SAC (Servicio de Atención al Ciudadano). También podrán presentarse por el resto de vías detalladas en el artículo 16 de la Ley del Procedimiento Administrativo Común. |
| 2022ko azaroaren 25ean GAOn argitaratutako Pasaiako Udalaren Administrazio Elektronikoari buruzko Ordenantzan ezarritakoa errespetatu beharko da. Zehazki, arau horretako 2., 4., 5., 6., 8. eta 18. artikuluetan xedatutakoa. | Se deberá respetar lo establecido en la Ordenanza de Administración Electrónica del Ayuntamiento de Pasaia publicada en el BOG el 25 de noviembre de 2022. En concreto, lo dispuesto en los artículos 2, 4, 5, 6 , 8 y 18 de la citada norma. |
| Eskaera dirulaguntza normalizatuaren eskabidea erabiliz egingo da (inprimakia egoitza elektronikoan, HAZen eta dagokion sailean eskuragarri, inprimaki kodea: E044). | La presentación de la solicitud se realizará utilizando la solicitud de subvención normalizada (impreso disponible en la sede electrónica, en el SAC y en el departamento correspondiente, código impreso: E044). |
| Era berean, dirulaguntzen justifikazioa E143 inprimakiaren bidez egingo da ( inprimakia egoitza elektronikoan, HAZen eta dagokion sailean eskuragarri). | Asimismo, la justificación de las subvenciones se realizará a través del formulario E143 (disponible en la sede electrónica, en el SAC y en el departamento correspondiente). |
| Eskaerak eta zuriketak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera. | El plazo de presentación de las solicitudes y justificaciones será de 30 días naturales a partir del siguiente día de la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Guipúzcoa. |
| Justifikatzeko modua Pasaiako Udalaren eta haren organo autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorraren aldaketan ezarrita dago | La forma de justificación esta establecida en la modificación de la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus órganos autónomos |

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

(2025eko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 238. zenbakian, argitaratua).

**9. Ebazteko eta jakinarazteko epea**

Ebazteko eta jakinarazteko epea 6 hilabeteko izango da, dagokion deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Ebazpenak arrazoitua izan beharko du, deialdian xedatutakoaren arabera, eskabideak baloratzeko irizpideak aipatuz, eta pertsona edo erakunde onuradunak eta laguntzaren zenbatekoa zehaztuz.

Ebazpenak dirulaguntzak ematea, ezestea eta ez ematea erabakiko du, atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo gerora sortutako ezintasun materialagatik.

Dirulaguntza emateko ebazpenean jasoko da zein pertsona edo eskatzaileri eman zaion dirulaguntza eta zeini ezetsi zaion; eta horrez gain, pertsona edo erakunde onuradun izateko berariazko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak betez, deialdian finkatutako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik baietsi ez diren eskabide guztien zerrenda ordenatua, bertan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera horietako bakoitzari emandako puntuazioa adierazita.

(publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, nº 238, de 12 de diciembre de 2025).

**9. Plazo de resolución y notificación**

El plazo de resolución y notificación será de 6 meses, el plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

La resolución habrá de ser motivada de acuerdo con lo que disponga la convocatoria, haciendo alusión a los criterios de valoración de las solicitudes, determinando las personas o entidades beneficiarias y la cuantía de la ayuda.

La resolución acordará tanto el otorgamiento de las subvenciones, como la desestimación y la no concesión, por desistimiento, renuncia al derecho o imposibilidad material sobrevenida.

La resolución de concesión además de contener las personas o entidades solicitantes a las que se concede la subvención y la desestimación expresa de las restantes solicitudes, deberá incluir una relación ordenada de todas las solicitudes que, cumpliendo con las condiciones administrativas y técnicas establecidas en las Bases Reguladoras específicas para adquirir la condición de persona o entidad beneficiaria, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito fijado en la convocatoria, con indicación de

| | |
|---|---|
| | la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos en la misma. |
| Norgehiagoka-prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. | La resolución del procedimiento de concurrencia competitiva se notificará a las personas interesadas de acuerdo con lo previsto en el artículo 45.1 b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| Ebazpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta onuradunen publikotasuna ziurtatzen duten beste baliabide batzuk erabiliko dira, hala nola egoitza elektronikoa eta udalaren webgunea. | La resolución será publicada en la BDNS y se utilizarán otros medios que aseguren la publicidad de las personas beneficiarias de las mismas, tales como la sede electrónica y la página web municipal. |
| Ez da beharrezkoa izango onuradunaren datuak argitaratzea, baldin eta, dirulaguntzaren xedea dela-eta, pertsona fisikoen ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea errespetatu eta babestearen aurkakoa izan badaiteke, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, bai eta irudi horren beraren aurkakoa ere, eta araudi erregulatzailean aurreikusita badago. | No será necesaria la publicación de los datos de la persona beneficiaria cuando, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas en virtud de lo establecido en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de Protección Civil del Derecho al Honor, a la intimidad Personal Y Familiar y a la propia imágen y haya sido previsto en su normativa reguladora. |
| Gehienezko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, interesatuek ulertu ahal izango dute diru laguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela. | El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legitima a los interesados para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención. |

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

**10. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak**

Pasaiako Udalaren eta haren organo autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorraren 28. artikuluan ezarritakoa.
Baita ordenantza espezifikoaren honako aldaketan ere: 2025eko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 238. zenbakian, argitaratua.

**11. Eskaerak birformulatzea**

Eskabideak birformulatu behar izanez gero, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 27. artikuluaren arabera egingo da.

**12. Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna**

Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

**13. Administrazio-bidearen amaiera**

Dirulaguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen

**10. Documentos e información que deben acompañar a la petición**

Establecido en el artículo 28 de la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus órganos autónomos.

Así como en la modificación de la ordenanza específica (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, nº 238, de 12 de diciembre de 2025).

**11.Reformulación de solicitudes**

En el caso de que se tengan que reformular las solicitudes se hará en base al artículo 27 de la Ley General de Subvenciones.

**12. Compatibilidad o incompatibilidad de la subvención**

Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquier otra Administración o entes públicos o privados.

**13. Fin de la vía administrativa**

El acto de resolución de la subvención agota la vía administrativa.

De acuerdo con lo que disponen los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

| | |
|---|---|
| denarekin bat, akordio horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Tokiko Gobernu Batzarrari, hilabeteko epean, jakinarazpena argitaratzen denetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluaren arabera. | Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra dicho acuerdo podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, en el término de un mes a contar desde el día siguiente de la publicación, o bien directamente recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastian, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. |
| **14. Eskaerak baloratzeko irizpideak**<br>Pasaiako Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren aldaketan ezarritakoa (2025eko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 238. zenbakian, argitaratua). | **14.Criterios de valoración de solicitudes**<br>Establecidos en la modificación de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus órganos autónomos (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, nº 238, de 12 de diciembre de 2025). |
| **15. Jakinarazteko edo argitaratzeko bitartekoak**<br>Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak, prozeduraren ebazpena barne, udal egoitza elektronikoan (www.pasaia.eus) argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat. Halaber, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko dira. | **15. Medios de notificación o publicación**<br>Las publicaciones que se deriven del presente procedimiento, incluida la publicación de la resolución del procedimiento, se practicarán en la sede electrónica municipal (www.pasaia.eus), de conformidad con lo establecido a estos efectos en el artículo 45.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Asimismo, las |

ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

| | |
|---|---|
| | subvenciones concedidas se publicarán en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS). |
| **16. Finantziazio publikoa adieraztea**<br>Diruz lagundutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzian edo grafikoan Udalaren finantzaketa publikoa jaso beharko da. | **16. Constancia de la financiación pública**<br>Toda la documentación y propaganda escrita o gráfica de la actividad subvencionada se haga constar la financiación pública del Ayuntamiento. |



EKS | CSV: ESKU5bce7952-d929-42c4-996c-e193aa926c9b

*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06410*

*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06410*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2025WDIR0016-Deialdiaren ebazpena/Deialdiaren ebazpena (PASAIAKO UDALA) |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

PASAIAKO UDALA

**Alberro Bilbao, Teo**
**Alkatea**
**Data:** 2025/12/17 17:41:50